



**Prensa oharra**

**Elkartasunaren aldeko apustua**

**EROSKI-K ETA HAREN BEZEROEK 4.224 TONA  
JANARI BAINO GEHIAGO EMAN DITUZTE  
BEHARRA DUTEN FAMILIENTZAT URTEKO LEHEN  
SEIHILEKOAN**

- **Kopuru horretatik 3.782 tona baino gehiago EROSKI Zero Hondakin programaren barnean emandako janaria da; horrela, bermatzen da dendetan ez dela alferrik galduko jateko modukoa dagoen janaririk, baizik eta gizarte erakundeei emango zaiela**
- **Elikagai Bankuen alde egindako elkartasun kanpainetan 442 tona inguru janari bildu zen EROSKIren saltokietan**
- **EROSKI joan deneko hogeitau urtean baino gehiagoan ari da FESBAlekin**

**Elorrio, 2019ko irailaren 6a.-** [EROSKI](#)k eta haren bezeroek 4.224 tona janari baino gehiago eman dituzte behar gehien duten kolektiboentzat, 2019. urtearen lehen seihilekoan. Kopuru horrekin, 2.200 pertsonak jan dezakete urte osoan. Dohaintza horretatik, 3.782 tona baino gehiago EROSKI eman ditu [Zero Hondakin programaren barnean](#); programa horren bitartez, bermatzen da EROSKIren dendetan ez dela alferrik galduko kontsumitzeko moduko elementurik eta denda bakoitzaren hurbilean diren gizarte erakundeei emango zaiela.

*"EROSKI konpromisoa hartua dago gizartearekin, eta behar handiena dutenekiko elkartasuna eta ardura erakusten ditu; hori dela eta, gizarte erakundeekin kolaboratzen du. Aurrendariak izan gara Espainian geure sektorean supermerkatu eta hipermerkatu sare guztian janaririk ez alferrik galtzen",* esan du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

FESBAlekin aritzen da EROSKI Zero Hondakin programan, Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioarekin. *"Inguruan alferrik galtzen den janaria ikusita, Zero Hondakin programa da, iraunkortasun aldetik adibiderik onenetako bat. Oso eskerturik gaude EROSKIrekin, hainbeste urtean gurekin jarduteagatik elikagaiak alferrik galtzearen aurka konprometituta; izan ere, gosea borrokatzeaz gain, Elikagai Bankuen zutabeetako bat da",* esan du Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioko zuzendari nagusiak, Miguel Fernandezek.

Kooperatibak protokolo bat landu du emandako elikagaien segurtasuna bermatzeko. Elikagai freskoekin, esaterako, zenbait neurri hartzen ditu hotz-katea

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



ez dadin eten ezta hartzailearen esku geratzen direnean ere; izan ere, horrek bermatu behar du baldintzak zorrotz zaintzen direla bai garraioan eta bai beren biltegietan.

EROSKIk baldintzarik onenetan dauden produktuak soilik eskaintzen dizkie bezeroei. Elikagai freskoren batek freskotasuna zertxobait galdu badu edo ontziren bat ez badago behar bezala (kolpetxo bat duelako, adibidez, edo bilgarria apurtu zaiolako), kendu egiten du saltokietatik, eta programa honetan parte hartzen duten erakundeei ematen die. EROSKIk ematen dituen elikagai guztiak beti daude iraungitze edo kontsumitze dataren barnean, eta kontsumitzeko egoera ezin hobean.

#### **442 tona janari baino gehiago bildu da kanpainetan**

3.782 tona janari baino gehiago eman dituzte Zero Hondakin programaren bitartez, eta beste 442 tona bildu dira Kilo Operazioarekin eta Udako Bilketa Handiarekin, biak ere urteko lehen seihilekoan gauzatuak EROSKIren, Capraboren eta Vegalsaren saltokietan, Elikagaien Bankuarentzat. *"EROSKIn ohikoa denez, konpromiso horretan parte hartu nahi izan dugu, eta kontsumitzaileek emandako kiloei guztizkoaren zati bat batu diogu gehigarri gisa"*, esan du Martinez Berriochoak.

1996an hasi zen EROSKI Elikagaien Bankuarekin lankidetzan, Bizkaiko Elikagaien Bankuak proposatuta eta kontsumitzaileek berek eskatuta, behartsuen eta bazterkeria soziala jasateko arriskuan direnen kolektiboari elkartasuna erakustea galdegiten zuten eta.

Kooperatibak egin duen lana aitortu izan du Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, eta Urrezko Galburuaren saria eman izan dio; hain zuzen, hori da Federazioaren saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmendu diren erakundeei ematen diena.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)